


# NOAUA!!!

www.noaia.com



Larunbat honetan,  
XIII. Artisau Azoka



161 ibilbide jaso dira NOAUA!k plazaratu duen liburuan

## Paseatuz, Gipuzkoa ezagutu

# Aizpurua Okindegia

Pantu guztien egunean  
-buiueloak  
-santuen bezurtxoak



Festetan zure mahaia  
ondo hornitu nahi baduzu,  
gurean baduzu aukera!

Kale Nagusia, 25 • © 943 36 12 20



## FUNERARIA GONZALEZ

**USURBILGO EHORZTETXEA**

Tel: 943.36.21.63  
608.16.77.92 eta 660.38.86.52

[funerariagonzalez@telefonica.net](mailto:funerariagonzalez@telefonica.net)

- ZERBITZU AZKARRA ETA ETENGABEA 24H
- BELATOKI GUZTIETAN ZERBITZUAK
- GARRAIOAK, HILARRIAK, ESKELAK...
- OSPITALE ZENTRU ETA EGOITZETARA ZERBITZUA
- SEGURU KONPAINI GUZTIEKIN LAN EGITEN DUGU, EHORZTETXERA ZUZENEAN DEITZEKO AUKERA EMANÉZ.
- HILERRIKO LAN GUZTIAK.

Muna Iurra Kalea 8

# Margotu egunak



## PARTE-HARTZEKO BILERAK

PLENARIOA	KAXKOA	LANDA EREMUA	KOMERTZIO ETA POLIGONOAK
azaroak 3, astelehena 18:30ean	azaroak 4, asteartea 18:30ean	azaroak 5, asteazkena 18:30ean	azaroak 6, osteguna 20:00etan
Sutegin	Sutegin	Sutegin	Sutegin

**Usurbil**  
osasuna atez ate



Usurbilgo Udala

[www.usurbil.net/atezate](http://www.usurbil.net/atezate)

Doako telefonoa: 900 776 776

Albistea iruditan !!

## Zirkoa, anbulategiko aparkalekuan

Urtero bisitatzen gaituzte, oraingoan ikuskizun berriekin. Pasa den asteburuan, anbulategi ondoko aparkalekua zirko gunean bihurtu zen. Cirque Fischer-ekoek emanaldi berri bat eskaini zuten. Malabaristak, pailazoak, magia ikuskizunak eta etxekotutako animalien erakustaldiarekin osatu zuten euren eskaintza. Zaletuentzat aukera ederra eskura, herritik mugitu gabe.

Aipatzekoa, azpiegitura guztia prestatzeko erakutsi duten azkartasuna. Herri guneko hainbat farolatan zirkoa izango zela iragartzen zuten kartelak egun batzuk lehenagotik jarrita izan arren, emanaldi bezperan, oraindik, zirkoko langileen arrastorik ez zegoen.



AURREKO ASTEBURUAN IZAN ZIREN GURE ARTEAN CIRQUE FISCHER-EKOAK.

## Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil  
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko orduetgia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com

Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com

Publizitatea: Bea Alda, publikitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbietta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.  
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

“GIPUZKOAN ZEHAR” ARGITALPENA **6. OR.**

LARUNBATEAN, ARTISAU AZOKA **10. OR.**

ATEZ ATEKO INFORMAZIOA SAREAN **13. OR.**

ZUBIETAK EZIN FINALERAKO SAILKATU **15. OR.**




Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



ARITZ GORRITI

## Probatu nahi?

**T**xikiak ginela, barazki pureaz goraino betetako platera jarri ziguten muturraren aurrean, baina kolorea edo usaina (gutako askorentzat kiratsa) nahikoa zitzaigun, protestan hasi eta makarroiak nahiago genituela esateko. Parranda gehiegi egiten genuelako, asteburua egunez behar bezala ez aprobetxatzea leporatu ziguten lagunek. Bestelako ekintzak egin genitzakeen, baina nahiago beti, bezperan goizaldeko ordu txikiak arte irauten zuten jai giro eta barre algarak. Medikiak tabako gehiegi erretzen genuela eta, aski zela oihukatu zigun. Eguneror ordea pakete osoa erretzeari ezin utzi.

Autoko gidabaimena atera genuen, eta lanera joateko aukeran bi bide genituen. Bata, laburragoa baina trafiko arazo gehiagorekin. Bestea, luzexeagoa, mendi aldetik zihona, baina lantokira ailegatzeko denbora gehiago behar izaten zen. Bi aldiz pentsatu gabe, bide motzena hartu eta "mekaguendioska" aritzen ginen eguneror, obrak zirela eta. Trena edo autobusa hartzea gomendatu ziguten, baina alferrik. Eskaintza haren onurei kasu zipitzik egin gabe, autoa hartzen jarraitzen genuen, baita etxe ondoan dugun dendara ogia erostera joateko ere.

Gainerako erosketak eginda mila boltsekin etxe atarira sartu, buzoia ireki eta zer jakingo... Atez ate jaso behar zizkigutela hondakin guztiak. Beste batzuk egiten zutela eta ondo zihoakiela. Buruhauste gehiago ez, mesedez!

Baina hara zer diren kontuak... Orduetik urte dezentepasa da. Egun, barazki purea oso osorik jaten ikasia dugu. Eta aizu, gustura asko gainera! Autoa etxean utzi, eta okindegira oinez joaten hasi gara, eta lanera, mendi bidetik. Bidean aurkitzen dugunarekin hitz egin, aire freskoa arnastu... Zer osasungarria! Mendira joatea bezala. Bai, bai. Andatzako buelta egin genuenetik, ez dago gu geldituko gaituenik. Oinetakoak zaharkituak ditugu dagoeneko. Eta hasierako ito larria gainditzeko, gogo txarrez, erretzeari utzi behar izan diogu. Eta zaborra? Beste batzuk bezala, guk ere egin genezakeela ohar-tarazi ziguten. Ba aizu, probatu eta nork esango ote zuen? Etxe atariraino datoz hondakinak biltzeko langileak. Ia guztia birziklatzen da. Pentsa, betiko zabor poltsa ia hutsik dago. Zabortegeien beharrik ez dugu. Orduan, erraustegia zertarako? Probatzen jarraitu behar...

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Jose Piñas - Unai Agirre - Idoia Torregarai

IKA MIKA ATALERAKO IDATZIAK GEHIENEZ 2.000 KARAKTERE IZANGO DITU. ALE BAKOITZEAN EZ DIRA BI IKA-MIKA BAINO GEHIAGO ARGITARATUKO. IKA-MIKA BAT BAINO GEHIAGO IRISTEN BADA, NOAUA!k IDATZI HORIETAKO BAT HURRENGO ALE BATEAN ARGITARATZEKO ESKUBIDEA IZANGO DU. NOAUA!k ez du bere gain hartzen IKA MIKA atalean adierazitako esaneren eta iritzien erantzunkizunik.

Hurrengo alea: azaroak 7. Idatzia ekartzeko azken eguna: azaroak 3.

### ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Asko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiakoa da.

## Bazkide egin zaitez!



### 36 euro urte osorako

Izena: \_\_\_\_\_  
 1.Abizena: \_\_\_\_\_  
 2.Abizena: \_\_\_\_\_  
 Helbidea: \_\_\_\_\_  
 Herria: \_\_\_\_\_  
 Telefonoa: \_\_\_\_\_  
 E-posta: \_\_\_\_\_  
 Kontu korrontea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## Astelehenean, odol-ematea

**D**atorren astelehenean, azaroaren 3an eta arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, odola emateko aukera berri bat izango da. Ohiko odol emailek abisua jasoko dute, baina odol emaile berriak ere ongi etorriak izango dira. Bestetik, azken urteotako ohiturari jarraituz, Usurbilgo Odol Emaileen eguna abenduaren 8an ospatuko da. Hasi dira egun hori ere prestatzen eta laster emango dituzte xehetasun gehiago.

Lehen aldiz odola ematen duenak baldintza hauek bete behar ditu: 18 urteak beteak izatea, 50 kilo edo gehiago pisatu, eta osasunez ondo egotea.

### Denok gara oinarrizkoak

“Munduan gero eta aurrerapen gehiago, baina oraindik odola ordezkatzeko duenik ez da asmatu, eta horretan gara guztiok oinarrizkoak”, adierazi digute Odol Emailek. Ohi bezala, azaroaren 3an, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara Osasun Etxean (ambulatorioan, alegia).

### Abenduaren 8an, Odol Emaileen Eguna

Aurten ere, Usurbilgo Odol Emaileen Eguna abenduaren 8an ospatuko da.

Laster emango dituzte ospakizun honen xehetasun gehiago.

Informazio gehiago e-posta honetan: [odolausurbil@begira.com](mailto:odolausurbil@begira.com)



19:00ETATIK 21:00ETARA  
IZANGO DA ODOLA EMATEKO GARAIA.

## Odola ematerakoan, kontuan izan beharrekoak

- 18 eta 65 urte arteko adina izatea.
- 50 kilo baino gehiago pisatzea.
- Tentsio altua eta baxua neurri egokietan mantendu.
- Azken odol emanalditik gutxienez

- bi hilabete pasa behar dira.
- Baraurik ez da odolik eman behar, ezta ere jan-betekarik egin ondoren.
- Gomendagarria, odola eman baino ordu bat edo bi lehenago, zerbait

- arina jatea, gero ahuldaderik ez dezagun izan.
- Botikaren bat edo beste hartuz gero, jakinarazi egin behar zaio odol-ematean izango den medikuari.

## Yoga ikastaroa antolatu dute Santuenean

**S**antuenea elkarteak hainbat ikastaro eta jardunaldi eginen dira urtean zehar. Azarorako, yoga ikastaroa prestatu dute. Izena emateko epea ireki berri da.

Yoga ikastaroa azaroko astelehenean eta ostegunetan egingo da, ordu-

tegi honekin: astelehenean, 19:00-20:30. Ostegunetan, 19:00-20:30.

Interesaturata daudenak Santueneko elkartetik pasa daitezke egun eta ordu horietan edo telefonoz deitu: 695 774 951. Manta batekin azaltzeko deia ere egin du yoga irakasleak.



**JOSUE**  
ARANZAZISTROKI  
**IGELTSERITZA**  
eta  
**PINTURA**  
Juan Jose enea, 6 Kalezar  
Telf: 606 37 21 05

**CLIMATA-T**  
klimatizazio orokorra  
687 858 390  
[climata\\_t@yahoo.es](mailto:climata_t@yahoo.es)

**LATAILLADE**  
GASA  
BEROKUNTZA  
MANTENIMENDUA ETA  
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK  
Ariztitxo 8, beheak · 948 568 348 · 609 888 021

# “Gipuzkoan zehar”, paseo lauak emateko gida-liburu berria

**D**onostiako Koldo Mitxelena Kulturunean prentsaurrean aurkeztu berria da, “Gipuzkoan zehar, paseo moduan egiteko 161 ibilbide lauak edo nahiko lauak”, herrialdean zehar Patxi Jagoba Azpirotz usurbildarrak egin dituen 161 ibilbideren bilduma lana. Bost liburuxkatan banatuta, NOAUA!-k sustatu, eta Udalak eta Foru Aldundiak lagundutako egitasmoa izan da.

Ingurune aldapatsuen orde, paseo lauak ematea gustuko dutenei zuzendu eta eskainia dago Patxi Jagoba Azpirotz usurbildarrak bost liburutan bildu dituen Gipuzkoan zehar eginiko 161 ibilbideak. Herrialdea hobeto ezagutzeko aukera izango da hemendik aurrera, Azpirotzen liburukiak eskutan ditugula.

## Paseoak, errehabilitatzeko

Mendi istripu handi batek mokorra higatu eta protesia jarri behar izan zioten Azpirotzi. Ordura arte mendizale amorratua izandakoa, ebakuntza gelatik pasa ostean, eta medikuek esandakoari kasu eginez, ibiltzeko zaletasuna bere eguneroko zeregin nagusian bihurtu zen; han eta hemen paseoak eman, gero ordenagailuan egindakoaren informazio bilketa lana egin... Eta hala, gutxienez, Gipuzkoako herri bakoitzeko ibilbide bat osatu arte.

Orain, bost liburukietan Azpirotzek egindako lanaren emaitza aurkezten da. Berak desio duen bezala, paseo on!



BOST LIBURUXKATAN 161 IBILBIDE BILDU DITU PATXI JAGOBA AZPIROTZEK.

## Erakunde eta herritarrak, Azpirotzen laneko parte hartzaile

**B**ost liburukiak argitaratzeak, Erakunde eta herritar desberdinen parte hartzea bultzatu du. Guztien ekarpenen emaitza da, hemendik aurrera, “Gipuzkoan zehar” izenburupean eskuragai izango diren paseoei buruzko 5 liburua.

“Gipuzkoan zehar” bildumaren egile, aipatu bezala, Patxi Jagoba

Azpirotz Manterola usurbildarra. Bera arduratu da baita, argazki eta dokumentazio lanaz ere. Liburuaren diseinuaren eta maketazioaren kargu, Intza Salsamendi. Joserra Tapia, berriz, zuzentzaile gisa aritu da.

NOAUA! Kultur Elkarteak sustatu du Azpirotzen proiektua. Usurbilgo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lagundu dute.

**Xukin** Andoni Errazkin  
igeltseritza orokorra

Barne eta kanpoko lanak

663 08 76 71 • USURBIL

[www.noaua.com](http://www.noaua.com)

USURBILGO ATARIA

# 161 ibilbide, edizio ederrean diseinatutako bost liburuxkatan jasoak

**H**erri bakoitzeko gutxienez ibilbide bat egitea proposatu zion bere buruari Patxi Jagoba Azpirotzek. Eta baita egin ere. Ur isurialdeen arabera antolatutako 161 ibilbide osatu ditu.

Bost liburuxkatan jasota geratu dira, ur isurialdeka antolatuta usurbildarrak Gipuzkoako hamabi zonaldeetan egin dituen 161 ibilbideak.

Bidasoa, Oiartzun eta Urumea inguruetan egindakoak jasotzen dira bildumako lehenengo liburuxkan; Oriagoierri eta Oriabarrenakoak bigarrenen; hirugarrenean, Ori-Tolosaldeko paseoak; Urolagoiena, Urolabarrena eta Kostaldekoak laugarrenean, eta Debagoiena eta Debabarrenakoak bosgarren eta azken liburuxkan.



OIARTZUN ALDEKO ARDITURRIKO PASEDA DA "GIPUZKOAN ZEHAR" LIBURUAN JASO DEN IBILBIDEETAKO BAT.

## PATXI JAGOBA AZPIROTZ

"Ibilbide bakoitzari buruzko behar adina informazio eskaintzen da; non hasi, nondik joan, non amaitu..."

Ibilbide bakoitzari buruzko behar adina informazio eskaintzen da; non hasi, nondik joan eta non amaitu behar den, bideak duen zailtasun maila, eta paseoan zehar aurkitu daitezkeen interes guneen informazioa ere eskaintzen da. Guztia argazki, mapa edota garraio-bideei buruzko informazioz hornitua.

## Nola eskuratu daiteke liburua?

**H**erriko liburu dendatan eta **NOAUA!**-ko egoitzan bertan eskuragarri izango duzue Patxi Jagoba Azpirotz usurbildarrak eginitako paseoei buruzko liburu bilduma. **NOAUA!**-ko bazkide direnek merkeago, gainera.

Lizardi eta Laurok liburu dendatan salgai izango da "Gipuzkoan zehar, paseo moduan egiteko 161 ibilbide lauak edo nahiko lauak". Gogoratu,

eskaintza eraman errazak diren bost liburuxkez eta bilduma osoa jasotzeko kaxaz osatua dago. Guztia, 20 euroren truke eskuratu ahal izango da aipatu liburu dendatan.

Baita **NOAUA!**-ko egoitzan ere. Bazkide direnek gainera beherapena izango dute, guztia 12 euroren truke eraman ahal izango baitute etxera. Kasu horretan, **NOAUA!**-ko egoitzara joan behar da, lan egunetan, goiz edota arratsaldean.

**izAgirre**  
943 36 50 95  
609 06 81 11  
izagirreletrizitatea@hotmail.com  
Goiz argi etxea 37, KALEZAR

Kale nagusia, 10  
Telf: 943 37 33 48  
943 37 09 13  
Okindegia - Gozotegia  
**LABE-GOXO**

teilatuak eta fatxadak  
**JOSE AIZPURUA UNANUE**  
Obaba kalea 29 • ASTEASU  
943 69 68 52 • 620 800 186

## Patxi Jagoba Azpirotz, liburuaren egilea

# “Gipuzkoarron kirolrik gustukoena, paseoa da”

**G**ipuzkoak paseorako duen ingurune kopurua zenbakaitza izan arren, leku lauetan 161 ibilbide oinez burutu eta horien bilduma lana egin du Patxi Jagoba Azpirotz usurbildarrak. Gipuzkoa gehiago eta hobeto ezagutzeko balio izan dio esperientziak, baina baita zenbait zonalderi buruz zuen iritzia onerako aldatzeko ere. Landa eremua bakkarririk ez, Gipuzkoako herri eta hirigunetan paseo guneak egokitzeko ahalegin berezia egin dela sumatu du Azpirotzek. Gipuzkoarrek oinez ibiltzeko duten zaletasunaren seinale. Geure ingurura begiratu besterik ez dago.

**NOAUA!** Non hasten da zuretzat, ibilbideen abentura?

Patxi Jagoba Azpirotz. Kirofanoan. Mendian istripu handi bat izan nuen duela 25 urte. Gerora, mendian ibiltzen jarraituta, horrek mokorra gastatzea eta ondorioz, protesi bat jartzea eragin zidan. Kirofanotik atera ondoren, medikuek errehabilitaziorik ez, ibili behar nuela esan zidaten, paseatu. Usurbilen ibiltzen hasi nintzen, betiko lekuetan; Anaerreak inguruetan, enpresa gunean. Zubieta, Txokoalde edota Aginagara joanda.

Ibilbide horiek bizpahiru aldiz egin da, trenera igo eta Oriora jo nuen. Bertan erreka bazterretik osteratxoa egin nuen. Gero Zarautzera, eta handik Zumaiara iritsi nintzen...

**N.** Lehendik zenuen zaletasuna, behar bat izatera igaro zen gero?

**P. J. A.** Oinez ibiltzea beti gustuko izan dut. Hirian, mendian ibiltzea bezala ez da, baina azken finean, ahal duzun lekura moldatzen zara; une hartan, makulu bidez leku lauetara. Ezin geldirik egon, zerbait egin beharra nuen. Ibilbideak bilatzen hasi nintzen, hasieran hurbilean. Baina gero, egunean



EBAKUNTZA EGIN ZIOTEN ETA MEDIKUAK OINEZ IBILTZEKO AHOLKATU. HORI IZAN ZEN LIBURUAREN ABIAPUNTUA. LIBURUAN JASO DITUEN PASEO ASKO BI MAKULUEKIN EGIN BEHAR IZAN ZITUEN.

zehar ibilaldiak egiten nituen, bajaran egonik egun osoa bainuen horretarako. Hala, goiz eta arratsaldeak paseatzeko baliatzen nituen. Eta iluntzetan, ordenagailu aurrean jarri eta ibilaldi guztien informazio bilketa lana egiten nuen. Bilatzaile geografikoetatik mapak atera eta argazkiak ateratzen hasten nintzen. Egindako paseoetan zehar datu pila hartu behar izaten nituen; kale desberdinen izenak...

### PATXI JAGOBA AZPIROTZ

“Usurbilen ibiltzen hasi nintzen; Anaerreak inguruan, enpresa gunean. Zubieta, Txokoalde eta Aginagan”

Ibilbide bakoitzaren txostena egiten nuen; mapa eta ibilaldia zehaztu, paseoak zer luzera zuen, inguruan zer museo zeuden... Hasieran denbora pasa bezala hartu nuen arren, gerora, Gipuzkoa osoan zergatik ez nuen egingo planteatu

tu nuen, ia zergatik ez nuen osatuko herri bakoitzeko ibilbide bat.

**N.** Geure herrialdeak baditu paseorako txoko ugari?

**P. J. A.** Hainbat toki daude; trenbide zaharrak daude eta bertatik jendeak paseoak egiten ditu, batez ere Deba arroan. Bestalde, Gipuzkoak hainbat urtegi ditu; eta bakoitzak bere ibilbidea. Ubideak ere hor daude, toki lauak inguru zoragarrietatik pasatzen direnak.

**N.** 161 ibilbide osatzeko zenbat denbora behar izan duzu?

**P. J. A.** 2006. urteko otsailean hasi eta uztaile arte. Paseo asko bi makuluekin eginak. Denborak aurrera egin ahala, makulu batekin. Makuluak kendu ostean egindako batzuk ere jaso ditut. Eta batzuk baita bizikletaz eginak ere, errehabilitazioa baliatuta. Egun batzuetan hiru ibilbide egitera ere iritsi nintzen; goizean Eibarren egon ostean, eguerdian Elgoibarren eta arratsaldean Mendaron adibidez.



# “Gure lurraldea ezagutzen nuela uste nuen”

NOAUA! Bilduma, beraz, errehabilitazio prozesuaren islada da.

Patxi Jagoba Azpirotz. Horretarako erabili nuen. Hala ere, ibilaldien informazioa osatzeko denbora gehiago behar izan nuen, beste bospasei hilabete. Egindako lana inprimatu eta lagunen artean banatu nuen. Iritzi desberdinak bildu ostean, argitaratzen ahalegindu nintzen. Azkenean, NOAUA! Kultur Elkarteak hartu zuen plazaratzeko erabakia.

**N. Oinez ibiltzeko errazak diren ibilaldiak proposatzen dituzu?**

P. J. A. Oro har, liburuxketan bildutako paseoak gune lauetan edo nahiko lauetan egindakoak dira. Hain zuzen, Zubietako itzulia adibidez laua da, baina guztiok Troiatik pasatzen gara eta hor aldapa handia dago.

**N. Gaur egun, gainera paseo zale asko dago?**

P. J. A. Gipuzkoarren kirolrik gus-tukoena, paseoa da. Gehienek praktikatzen duten modalitatea da. Zubietara joanda ikusi besterik ez dago. Ibilaldiak egiterakoan, milaka pertsonekin ibili naiz. Hori bai, herri bakoitzean jende berdina ibiltzen da beti paseo berdinak egiten. Eta ez dute ohitura handirik kanpora ateratzeko, nahiz hainbat usurbildarren kasuan, herriko ibilaldiak egiteaz gain, Orio aldera joateko ohitura handia izan. Alde horretatik, nire liburua lagungarria izan daiteke.

**N. Ibilaldiekin batera, lekuan lekuko informazio osagarria ere eskaintzen duzu; museo eta ikuskin-zunen berri...?**

P. J. A. Biltzen dira baita tren ordu-tegiak ere. EuskoTren eta Renfe tren sareak ardatz hartuta, ingurune desberdinetara ailegatu nintzen. Beste lekuetara iristeko, trenaz gain ere autobusa hartu beharra dago. Lagun



IBILBIDE BAKOITZAREKIN FITXA MODUKOA OSATU DA BERE ARGAZKI, MAPA ETA PRAKTIKOA IZAN DAITEKEEN INFORMAZIOAREKIN.

batzuek, jateixe garrantzitsuen zerrenda falta dela esan didate.

**N. Gipuzkoa zer modutan ezagutzeko aukera izan duzu?**

P. J. A. Hasiara batean Gipuzkoa ezagutzen nuela uste nuen. Irun aldearekin poztu naiz. Paseorako beti iruditu izan zait hiri handi eta desastrosa. Irudi hori nuen. Baina Irunen sartu eta harri eta zur geratu naiz, onerako, ibilaldiak egiteko zer ondo prestatuta duten ikustean. Bertan egindako txangoak benetan politikak izan dira.

## PATXI JAGOBA AZPIROTZ

“Oro har, liburuxketan bildutako paseoak gune lauetan edo nahiko lauetan egindakoak dira”

Oro har, herri guztiek landu dituzte bere paseo tokiak, inbertsio on bat egin dute. Hiri eta herrietatik kanpo trenbide ikusgarriak izandakoak daude, batzuk bide gorri bezala jarrita, beste batzuen izaera mantenduta. Bestalde, garraio publikoak ez du batere ondo funtzionatzen eta dagoen eskaintzarekin leku batzuetara ezin zara iritsi. Horregatik ibilbide batzuk egiteko egun osoa behar da.

**N. Liburuetatik kanpo geratu zaizkizu ibilbide gehiago?**

P. J. A. 161 ibilbide baino gehiago egin ditut, baina sartu beharrekoak liburuetan jasota daude. Ibilaldiak egiterakoan beste paseo pila egiteko aukera sortzen da. Hiri ibilaldietan kale bat edo beste hartzeak ere guztia aldatzen du. Ibilaldi asko egin daitezke, nahi adina. Gauza da lauak izatea. Nire buruari beti planteatzen nion lauak edo nahiko lauak izan behar zutela liburuxketan aurkeztutako paseoek. Hainbat ibilaldietan aldapa handietan sartu naiz eta horiek liburuan ez ditut jaso.

**N. Paseorako aitzakia gutxiago dugu orain, bilduma hau eskutan izanda?**

P. J. A. Paseatzeko aitzakia norberak jarri behar dio bere buruari, baina bilduma kokatzeko lagungarria izango zaio. Egindako lanaren kopiak lagunen artean banatu ditut, eta badakit batzuk seme-alabak izanda, egiten dituztela. Paseatzeko gogoia izanda, segi buelta ematera. Askok esan didate ibilbideak osatzeko beharrezkoa den denbora zergatik ez dudan jarri. Paseoaren aurka doala iruditzen zait.

# Santu guztien egunean, Artisau Azoka

## Keramika, otargintza eta bitxigintza produktuak ikusgai frontoian

**E**goitzak itxita jarraitu arren, Aitzaga Kultur Elkarteko kideek urtean zehar hainbat ekitaldi antolatzen jarraitzen dute. Azaroa ailegatzearekin batera, jada ezaguna den Artisau Azoka ospatuko da. Hamahirugarren edizioari, larunbat honetan, hilaren 1ean, goizeko 11:00etan emango zaio hasiera, frontoian. Produktu eskaintza anitza, azokara hurbildu, osteratxo bat egin edota zerbait erosi nahi duenarentzat.

Egoitzaren itxierak baldintzatu arren, ez da eten Aitzaga Kultur Elkartearen jarduna. Asteburu honetarako antolatutako Artisau Azoka da horren erakusle argia. Udazkena heltzearekin batera antzeko ekimen ugari ospatu ohi dira Euskal Herriko hainbat txokotan. Usurbilgoak ere tradizio luzea du. Azoka hamahirugarren ediziora ailegatu den honetan, urtero bezala, nekazariorako produktuak artisauek eskuz egindakoekin uztartuko dira.

### 20 postu jarriko dira

Denetariko hogeita postuetatik osteratxo bat egiteko aukera izango da pilotalekuan, azaroako lehen egunean. Goizeko hamaiketatik aurrera, hiru orduz, keramika, otargintza, eztigintza edota bitxigintza alorreko produktuak erakusgai jarriko dituzte, baita salgai ere, erosketaren bat egin nahi duenarentzat.

Gipuzkoatik etorriko dira artisau gehienak, asko inguruko herrietatik, baina Ipar Euskal Herriak, Bizkaiak eta Arabak ere euren ordezkari izango dute; pategintza, pastiza eta gozogintza produktuekin hain zuzen.

Janaria aipatu edota usaintze hutsarekin, asko gosetuta izango dira. Antolatzaileek sabela betetzeko tarte erreserbatu dute pilotalekuan. Txorizo eta talo ederrak dastatzeko aukera izango baita.



LARUNBATEAN, GOIZEKO 11:00ETAN ZABALDUKO DA AZOKA.

DENETARIKO PRODUKTUEZ HORNITURIKO 20 POSTU JARRIKO DIRA.

## Usurbildarrak ere azokan

**A**urpegi ezagunak ikusi ahal izango dira larunbateko Artisau Azokan. Martin Agirresarobek eztigintzako postua izango baitu, eta Alkartasuna

Nekazaritza Kooperatibakoek nekazaritzako lan tresnak erakusgai jarriko dituzte. Edorta Muruak egurrezko ikurrez osatutako postua izango du.

# Azokan parte hartuko duten artisauak

IZENA	LANGINTZA	HERRIA
Rosa Palacios	Ukenduak	-
Asun Otxotorena	Ukenduak	Hernani
Laureano Paniagua	Bastoigintza	Urnieta
Francisco Moirriña	Sestogintza	Urnieta
Rosa Garate	Larrua	Donostia
Ramon Aduriz	Egurrezko kateak	Orereta
Iñaki Gorostidi	Harriak	Aduna
David del Toro	Argizariak	-
Arantza Munita	Zeramika eta pintura	Tolosa
Kiara	Beira	Bidegain
Karlos Irazu	Eskultura eta pintura	Larraul
Edorta Murua	Egurrezko ikurrak	-
Adela	Bitxigintza	Donostia
Alkartasuna Kooperatiba	Nekazaritzako lan tresnak	Usurbil
Pilar Castro	Pategintza	Ipar Euskal Herria
Jon Ubarritza	Euskal pastiza	Laudio
Maria Jesus	Euskal pastiza eta goxogintza	Mailabia
Izoria gaztak	Gasnagintza	Laudio
Goenaga	Esnekiak	Donostia
Martin Agirresarobe	Eztigintza	Usurbil

## Herri kirol saioa abenduan egingo da

Aurreko edizioetan, Artisau Azokarekin batera, herri kirol probaren bat ospatu izan da, azaroaren leian. Aurten aldiz, ez da hala-korik izango santu guztien egunean.

Bai ordea, abendu partean.

NOAUA! Kultur Elkarteak antolatuko duen San Tomaseko azoka egunean, aurten Usurbilgo aizkolari txapelketa jokatuko baita. Kirol

probako parte hartzaileak usurbildarrak edota herriarekiko loturaren bat dutenak izango dira. Laster izango duzue herri kirol saio honen berri gehiago.

**URDAINTZI S.L.**  
*grafikuntza*

943 36 55 81  
 943 36 55 81  
 943 36 55 81

**Otar-Goxo**  
*Elizkurgutak*

Zubiaurrenea, nº2  
 ☎ 943 36 55 81  
 20170 Usurbil

**JUANTXO**  
 BURDINDEGIA

Zubiaurrenea 8  
 ☎ 943 370 008

**Patri Jatetxea**



K/nagusia 14. ☎ 943 362 725

## Atez ate, bilketa gastuek gora egingo dute baina diru sarrerak ere igo egingo dira

**A**tez ateko bilketa sistemarekin, kontainerrak desagertu egingo dira. Akaso beira biltzeko edukiontzia mantenduko dute, baina gainontzekoak kendu egingo dira. Honek zabor-bilketaren gastua handitzea ekarriko du. Baina sarrerak ere handitu egingo dira, erreusa edo birziklatzen ez den zatia askoz txikiagoa izango baita, eta birziklatutako atal batzuk saltzeko asmoa baitago. Udalarentzat diru-iturri izango dena.

### EGUNGO EREDUA ERE, GARESTI

“Hondakinak biltzeko egungo ereduarekin jarraituz gero, tasak garestitzen joango dira”

Orain arte, zabor biltzaileek egiten zuten ibilbidean kontainerrak zeuden lekuetan gelditzen ziren soilik. Atez ateko sistema berriarekin, ordea, ibilbideko geltokiak gehitu egingo dira, langileek etxe atari bakoitzeko hondakinak bildu beharko baitituzte.



ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMA EKONOMIKOKI BIDERAGARRIA IZANGO DELA AURREIKUSTEN DUTE HAREN ALDEKO ERAGILEEK.

Guztia jasotzeko denbora gehiago beharko da, honenbestez, bilketa gastuak egungoak baino handiagoak izango dira.

### Birziklatzea, diru-iturri

Baina gaur egun indarrean den sistemarekin alderatuta, diru sarrerak ere handituko dira; erreusa edo birziklatzen ez den zatia askoz txikiagoa izan-

go baita, eta birziklatutako atal batzuk saltzeko asmoa baitago. Udalarentzat diru-iturri izango dena.

### Tasak

Bestalde, hondakinen egungo eredu edo kudeaketarekin jarraituz gero, herritarrek ordaindu beharreko tasak garestitzen joango direla ere jakinarazi zuten, lehen bilera errondan.

## Zalantzak argitzen

**L**ehen aurkezpen ekitaldian, lkezketa eta zalantza asko planteatu zituzten bertaratu ziren herritarak. Horietako batzuk, hauexek.

### Atal organikoan zer sartu?

Gai gordinak, baina baita sukaldetan prestatutakoa ere.

### Bildutakoa nora doa?

Atal bakoitza dagokion tratamendu gunera. Aurkezpen hitzaldian zehaztu

zutenez, bildutako zati organikoarentzat Zubietan kokatuko den Garbitxikiaz gain, Usurbilen beste konpost gune bat kokatuko da. Atez atekoa abian jartzen denerako, oraindik ez da prest egongo. Horregatik, gune berria zabaldu artean, konpostagarria dena beste konpost guneetara eramango da tratatzera.

### Anonimotasuna

Hondakinak gaika ondo sailkatzea

da helburua, etxe atarira nahastuta ateratzen dena ezin baita birziklatu. Ez da jakin nahi, norberak etxean zer nolako hondakinak sortzen dituen, sailkapena ondo egina dagoela bermatzea baizik.

### Bilera gehiago egingo dira

Dena den, bigarren bilera erronda bat egingo da. Izan ere, bilera hauek ere, horretarako antolatu dira, herritarren zalantzak argitzeko.

# Atez atekoaren berri emateko, webgune bat jarri du martxan Udalak

**H**ondakinen atez ateko bilketa sistemaren inguruko nondik norakoan berri izan nahi duenak, Udalak zabaldu duen web orrira jo dezake: [www.usurbil.net/atezate](http://www.usurbil.net/atezate)

Kanpainaren aurkezpeneko logotipo bera baliatuta, "Usurbil, osasuna atez ate" lemapean, hondakinen bilketa egitasmo berriari buruzko web orrialdea zabaldu du Udalak. Herritarrei zuzendutako informazio gune berria bisita daiteke jada.

Gaiari lotuta, sortzen doazen albisteak elikatzen ari dira web orria. Informazioa da beraz, atari berriaren oinarri nagusietako bat.

Bestalde, abian den parte hartze prozesuaren egutegia ere zintzilikatu dute. Atez ateko bilketa sistema berriari buruzko informazioa nahi duenak, gaiari buruzko zenbait dokumentu ere kontsultatu ditzake.

Parte hartze prozesuari lotutako bilera erronda hasi zenetik, herritarrek argitu nahi dituzten zalantza asko dituztela garbi geratu da. Udalak zabaldu duen web orria, maiz



ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMARI BURUZKO INFORMAZIOA, ZALANTZAK ARGITZEKO TARTEA, DOKUMENTAZIOA... AURKI DAITEZKE ATARI BERRIAN.

errepikatzen diren galderari erantzuteko baliatuko dute.

## Baita telefono bidez ere

Hala ere, web gunea ez da Udalak hondakinen atez ateko bilketa sistemari lotuta herritarren eskura jarriko

duen komunikazio tresna bakarra. Horrekin batera, Sutegiko erakusketa aretoan, herritarren zalantzak argitzeko informazio bulego bat zabaltekoak dira.

Baita doako telefono zenbaki bat ere; 900 776 776.

## Datorren astean, bilera irekien bigarren erronda

**A**uzoka eta sektoreka egindako lehen bilera erronda amaitu da. Datorren astelehenean, azaroaren 3an, ekingo zaio bigarrenari. Hauek dira datozen egunetako hitzorduak:

### AZAROAK 3 ASTELEHENA

Gaia: Atez ateko bilketa. Aurkezpen orokorra. 18:30ean, Sutegin.

### AZAROAK 4 ASTEARTEA

Gaia: Kaxkoko atez ateko bilketa (Elizalde, Kalezar, Atxegalde). 18:30ean, Sutegin.

### AZAROAK 5 ASTEAZKENA

Gaia: Landa eremuko atez ateko bilketa. 18:30ean, Sutegin.

### AZAROAK 6 OSTEGUNA

Gaia: Komertzio eta poligonoetako atez ateko bilketa. 20:00etan, Sutegin.

### AZAROAK 7 OSTIRALA

Gaia: Santueneako atez ateko bilketa (Santuenea, Urdaiaga, Txokoalde). 18:30ean, Santueneako auzo elkartearen egoitza.

### AZAROAK 8 LARUNBATA

Gaia: Zubietako atez ateko bilketa. 17:00etatik aurrera, Zubietako frontoi atzeko lokala.

### AZAROAK 10 ASTELEHENA

Gaia: Aginagako atez ateko bilketa. 18:30etik aurrera, Aginagako ludotekan.

Informazio gehiago:  
[www.usurbil.net/atezate](http://www.usurbil.net/atezate)

## Ondo hasi du denboraldia

### Udarregi ikastolako eskubaloi taldeak

**U**darregi ikastolako gazte-  
txoak ere hasi dute den-  
boraldia. Pasa den aste-  
buruan, Andoainen jokatu zuten  
eta partida irabaztea lortu zuten.  
Irabazi ondorengo alaitasuna ageri  
zaie aurpegietan. Orain arte bi par-  
tida jokatu dituzte eta biak irabazi  
dituzte.

Ondo hasi dute denboraldia iru-  
dian ageri diren eskubaloi jokalariek.  
Ea datozen asteetan ere horrela  
jarraitzen duten. Ondo pasatzea da  
kontua eta argazkiari erreparatuta  
behintzat, gustura dabiltzala esan  
daiteke. Zorionak mutilak!



ANDOAINEN IRABAZI ETA GERO, POZIK ZEUDEN UDARREGIKO JOKALARIAK.

## Ostegun honetan, Hitz-Ahoren bilera

**H**itz-Aho taldea osatzen duten  
Huraso batzuk dagoeneko  
lanean hasi dira eta ikasturtean zehar  
antolatu nahi dituzten jarduerak  
burutzeko, lagun gehiagoren faltan  
aurkitzen dira. Azaroan, esate batera-  
ko, hainbat tailer antolatuko dituzte.

Hitz-Ahoren bilerak otegunetan  
egin ohi dituzte, hamabostean behin.

Arratsaldeko 19:30ean izaten dira,  
beheko ikastolan. Ostegun honetan,  
urriak 30, bilduko dira.

Udarregi ikastolako webgunean  
ipini duten oharrean, parte hartzera  
animatu nahi dituzte gurasoak.



BILERA 19:30EAN HASIKO DA,  
BEHEKO IKASTOLAN.

Harremanetarako helbide bat ere  
zabaldu dute: [hitzaho@udarregi.com](mailto:hitzaho@udarregi.com)

## Jardunaldi teknikoa

### Lanbide Eskolan

**O**stegun honetan, Usurbilgo  
Lanbide Eskolan hidrogeno  
eta erregai pilen inguruko jar-  
dunaldi tekniko bat egingo da.  
Goizeko 9:30ean hasiko diren jar-  
dunaldietan, hidrogenoa zein pilen  
garapena, erabilpena eta proiektu-  
en azterketaz hitz egingo da.

Sarrera doan da baina parte har-  
tzeko izena ematea ezinbestekoa  
da. Informazioa jasotzeko honako  
telefono zenbakira deitu behar da:  
943 35 46 00.

**txirriStra**  
KONTSEJUZARRA 13  
943 360 466

pintxoak  
ogitartekoak  
piater konbinatuak

**TABERNA**

**ERRAZKIN**  
Igeltsoitza S.L.

Tel.: 649 435 470  
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47, Behea A.  
20170 USURBIL

Industri eta iragarki  
**SERIGRAFIA**  
TANPOGRAFIA

**OSU**

943 371 954  
UGALDEA POL.36-2-USURBIL

KAMISETOEN LINTIMARREDIA

## Finalerako txartela gertu izan zuten zubietarrek

**E**z da posible izan. Zubietarrek txapelketa ederra osatu dute. Ligaxkan, bigarren geratu ziren, Donibane Lohitzuneren atzetik. Aurreko igandean, final-aurrekoan, partida irabazteko zorian izan ziren. Baina azkenean, Villabona eta Donibane Lohitzune izango dira Endika Abril Txapelketako finala jokatuko dutenak. Azaroaren 9an igandea, Oiartzunen.

Mikel Bengoetxea Zubieta Pilota Elkarteko ordezkariak adierazi digunez, "Villabonako jokalariek hobeto ekin zioten partidari. Ondo hasi ziren jokatzen eta azkar aldendu ziren markagailuan". Zubietarrak ezinean ibili ziren eta Bengoetxearen ustez, "urduri samar".

Pentsa nolakoa izan zen final aurrearen hasiera, markagailua 11-2 jarri zela

Villabonaren alde. Partida amaitzeaz zela zirudienean, orduan sartu ziren jokoan Zubietako mutilak. Mikel Bengoetxearen esanetan, "ia partida galduta ikusirik, lasaitu egin ziren gure jokalariek, eta hobeto hasi ziren jokatzen. Pixkanaka pixkanaka, jokoan sartu ziren, eta markagailua asko estutu zen: 12 eta 11". Ezustea posible zela zirudien baina azkenean villabonatarrek 13. tantoa egin zuten eta horrela bukatu zen partida, 13-11.

### Finalean, Donibane faborito

Azaroaren 9an jokatuko da Endika Abril Errebote Txapelketako finala Oiartzunen, Villabona eta Donibane Lohitzuneko taldeek jokatuko dutena. Donibaneok direla faborito esan daiteke, izan ere, Euskal Herriko txapel-dunak ere badira. Baina Mikel Bengoetxearen ustez, kontuz ibili



FINALA AZAROAREN 9AN JOKATUKO DA OIARTZUNEN.

beharko dute, Villabonakoek egun ona badute, lehia estua izan daiteke.

## Eskubaloi taldekoak

### hasi dira errifak zozketatzen

**H**asi da eskubaloi denboraldia. Asteburuetan, eskubaloi taldeek etxean jokatzen duten bakoitzean, beste itxura bat hartzen du Oiardo kiroldegiak. Eta partidekin batera, errifak ere martxan dira. Pasa den asteburuan, Jexux Tapia izan zen saritua. Atxega jauregian birentzat otordua (afaria edo bazkaria, aukeran) irabazi du. Usurbil KE taldeko kideek eskerak eman nahi dizkiote Atxegari eta baita errifa erosten laguntzen duten herritar guztiei.



JEXUX TAPIAK IRABAZI ZUEN  
ESKUBALOI TALDEKO LEHEN ERRIFA.

### Pilota partidak

URRIAK 31 OSTIRALA  
USURBIL, 19:00

Eskuz binaka nagusiak 2. maila  
USURBIL 2 - ILUNPE 2  
(Enrike Huizi - Aitzol Txapartegi)

URRIAK 31 OSTIRALA  
ZUBIETAN, 21:15

Pala motza nagusiak 2. maila  
USURBIL - LANDARE  
(Oidui Usabiaga - Jon Arruti)

URRIAK 31 OSTIRALA  
ATAUNEN, 19:00

Eskuz binaka jubenilak 2. maila  
ATAUN - USURBIL 1  
(Gorka Mendizabal - Josu Ostolaza)

URRIAK 31 OSTIRALA  
ARETXABALETAN, 19:00

Eskuz binaka jubenilak 2. maila  
ARETXABALETA - USURBIL 2  
(Julen Gesalaga - Markel Galarraga)

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN • ALDIZKARIA ON LINE • INKESTAK • FORDAK • POSTA

**www.noaua.com**  
USURBILGO ATARIA

**ALIPROX**

Kale Nagusia 10  
☎ 943 361 182  
USURBIL





**Agenda !****Azaroak 1 larunbata**

- XIII. Artisau Azoka. 11:00 frontoian.

**Azaroak 2 igandea**

- Haurrentzako zinea, "Sorgin bat etxean". 17:00etan Sutegin.

**Azaroak 7 ostirala**

- "Apiterapia eta erle mundua", hitzaldia Sutegin. 17:00etan.

- Helduentzat zinea, "Obaba". 22:00etan Sutegin.

**Azaroak 9 igandea**

- X. Erle Eguna, goizean frontoian.  
- Haurrentzatz zinea, "Pepper". 17:00etan Sutegin.

**Azaroak 10 astelehena**

- Pello Añorga ipuin kontalaria, 18:00etan udal liburutegian.

**Erakusketa Aginagan**

"Gordeta ditudanak", Alejandro Tapiaren margoak eta eskultura, Aginagako Eliza zaharrean, azaroaren 9ra arte. Asteazketatik ostiralera, 18:00-20:00. Larunbata, 12:00-14:00, 18:00-20:00. Igandea, 12:00-14:00.

**"Sorgin bat etxean",  
igande arratsaldeko pelikula**

**M**aria 8 urteko neskatuari, bere anaitxo oso nekagarria dela iruditzen zaio. Auzoan bizi den Makkaren lagun egiten da Maria, eta kristalezko bola bat erabiliz, anaia betirako desgertzea desiratuko du. Hortik aurrera gauzak ez dira berdin izango.

Maria gaixorik jartzen da, eta gurasoak Izeba Gerda izeneko umezaina ekartzen dute anai-arrebak zaintzeko. Makka eta Maria laster konturatuko dira desioa egi bihur daitekeela, Gerda sorgin maltzurak anaia txikia lapurtu nahi duela ikusten dutenean. Maria benetan damutzen da desiratu duenez eta Gerda gelditzeko ahalegin guztiak egingo ditu. Magiazko liburu batekin, eta Makkaren laguntzaz, Gerdari aurre egingo dio Mariak, sorginak bere anaia txikia lapurtu ez dezan.



17:00ETAN HASIKO DA PELIKULA.

Noiz: azaroak 2 igandea, 17:00.

Non: Sutegin.

Sarrera: 2 euro, takilan.

Adina: 7-12 urte bitarteko haurrak.

**KzGunea, ikastaroak**

AZAROAK 3 / AZAROAK 14

Internet oinarritzko ikastaroa, 16:00-18:00.

AZAROAK 4 ASTEARTEA

Sinadura elektronikoa, 18:00-20:00

AZAROAK 13 OSTEGUNA

Sinadura elektronikoa, 18:00-20:00

AZAROAK 18/19

Irudi digitalen tratamendua I, 16:00-18:00

KzGunea azaroan: 16:00/20:00. 943 36 14 12

**Atez ateko****aurkezpen ekitaldiak**

Azaroak 3 astelehena. Aurkezpen orokorra. 18:30ean, Sutegin.

Azaroak 4 asteartea, Kaxkoko bilketa. Elizalde, Kalezar, Atxegalde. 18:30ean, Sutegin.

Azaroak 5 asteazkena, Landa eremu-ko atez ateko bilketa. 18:30ean Sutegin.

Azaroak 6 osteguna, Komertzio eta poligonoetako atez ateko bilketa. 20:00etan, Sutegin.

**Azaroaren 7an,****"Obaba" filma Sutegin**

Boinarritzen da "Obaba", Montxo Armendariz zuzendari nafarrak duela hiru urte zuzendu zuen filma. Aktoreen artean, Pilar Lopez de Ayala, Juan Diego Botto eta Mercedes Sampietro. Azaroaren 7an ostirala, gaueko 22:00etatik aurrera. Sarrera, 3 eurotan, Sutegiko lehiatilan bertan.

Zuen publizitatea hemen

943 360 321

publizitatea@noaua.com



## ETXEBIZITZA

- Usurbildar gazte bat alokairuan dagoen etxe baten bila, Usurbilen. Tf: 652 750 789.
- Etxe bat alokatu nahiko nuke ahal bada Usurbilen edo inguruan, bakarrik edo konpartitzeko. 620431108.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilaguntzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 47.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 220.000 euro. 678084020.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukalde, egongela eta trasteroaren. 685731792.

## SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da.

- Interesatuak deitu 658716970 telefonora.
- Etxebeste kalean 44 m<sup>2</sup>-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.
- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajeon egondakoa. 620625823.
- Citroen Saxo diesela daukat salgai. Matrikula SS-BC da. 656734413 (Marijo).
- BMW 650F motorra daukat salgai. Egoera onean eta garajeon egondakoa. 666988050.

## LANPOSTUAK

## Lan-eskaintzak

- Antxeta jate txean kamarera behar da, astelehene-tik ostiralera lan egiteko.
- Sukaldari bat behar da Xarma tabernan. Interesatuak deitu 943368771 telefonora.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta umea zaintzeko pertsona behar da. 627278907.
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

## Lan-eskaerak

- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00era edo bestela kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska euskaldun bat behar da Kinkildegian lan egiteko. 609099824 / 943214508.
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 679062726 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da, Usurbilen arratsaldez umeak zaintzeko. Interesatuak deitu: 661702708 / 943575788
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko goizeko 7:30etik goizeko 9:30/10:00ak arte. Umeak zaindu edota ikastolara eramateko, astelehenetik ostiralera. 647 742 893.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
- Arratsaldetan lan egiteko prest nago.

- Garbiketan, gaixoak zaintzen... edo bestelako lanetan. 608 00 54 06.
- Lan bila nabil. 608 83 50 33.
- Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da, esperientziaduna. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

## BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Ostegun iluntzean, errealeko jertsea galdu nuen frontoian. Norbaitek bilatu badu, 686969112
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Yorkshire terrier arrazako txakur bat galdu zaigu. 609 653 440. Txakurra itzultzen duena saritua izango da.
- Etxebizitzaren erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Bakarkako haur ohe bat salgai koltxo eta guzti. Tamaina: 90 x 1,90. Oso gutxi erabilia eta polita. Interesdunek: 629 730 299.
- Arropadenda batetarako altzariak eta mostradore bat saltzen da merke. 943 363 448.
- 1,5 metroko somierra eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberriaren umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentziora jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Kotxeko aulkixoa salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Aritz egurrezko aulkiak salgai. 943 36 20 49.
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Leire!

Iritsi da, iritsi da, urriaren 28a iritsi da! Zorionak zuretzako eta ez ahaztu tarta etxe koentzat.



Zorionak Unax!

Urriaren 30an 4 urte egingo dituzu. Zorionak eta muxu potolo bat Irati, Aita eta amaren partez.



Zorionak Bakartxo!

Urriaren 23an zure urtebetetze eguna izan zen. Muxu handi bat eta besarkada bero bat famili guztiaren partez.



**Negu honetan,  
ahaztu hotza.**

ESKAITZA  
PAREGABEA

## Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:  
**3.300€**  
(BEZ kanpo).

+

**KREDIGAS**  
finantziario berezia,  
instalazioa hileko kuota erosotan  
finantzatzena.

+

**570€**  
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziario berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gauko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gubi garabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, koadertsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 errodiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandararen gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAlurekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina  
www.naturgasenergia.com



**naturgas  
energia**

# EDERTU ZAITEZ!



Eskaintza Solariuma 35€

**Ioli Lizarraide**

ileapaindegia • Estetika Zentroa Merche Casaresen eskutik

Zubiaurrenea, 5-B. ☎ 943 361 971



**Jwar**  
ESTETIKA

- tatuaiak
- piercing
- fotodepilazioa
- mikropigmentazioa
- hortzetako kristalak

munaturre 2, Usurbil ☎ 943 571 680



**Agate**  
ESTETIKA ZENTROA

- Depilazioa • Laser-depilazio
- Manikura • Aurpegiko Tratamendua
- Pedikura • Solariuma • Makilajia

Nagusi 51 • Lasarte-Oria 943 370 549



**Intza**  
ileapaindegia

- ✓ Iile tratamenduak
- ✓ Laser Depilazio

eskeintza / ild. irakurketa / 400000

Eguerdian irekia!!!

IV/ Nagusia 8 ☎ 943 363 641



**Elexpe**  
ileapaindegia

Betileen tintaketa eta permanentea

Estetika • Tatuaiak

Zutikako eta Etzandako Solariuma

Muna Lurra 12. ☎ 943 370 462



**mistoa**

Depilazioa  
Makilajea  
Manikura

Zubiaurrenea 4, USURBIL • ☎ 943 361 951